



PRENTSA OHARRA

ON.eus: euskarari buruzko erreferentziazko plataforma bat

2025eko irailaren 16an, asteartez, euskararen biziberritzean engaiatutako elkarte eta instituzioetako ordezkariak Baionan bildu dira, www.on.eus webgunea jendaurrean aurkezteko. Ikasturte hasierako giroan eta Mintzalasai festibalaren baitan, tresna partekatu hori sortzera eraman dituen bost urteko lanaren ibilbidea azaldu zuten.

“ON! Piztu” elkarteak eta Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) bultzatutako proiektua da, eta Europako FEDER lurralde funtsek eta EEPk kofinantzatzen dute. ON! diagnostiko kolektibo baten emaitza da: azken 70 urteetan, hainbat eragile mobilizatzen dira euskararen biziberritze prozesua elikatzeko. Bakoitzak eduki ugari sortzen eta zabaltzen ditu (lineako ikastaroak, haurrentzako ipuinak, bideo ludikoak, podcastak, jokoak...). Baliabideak existitzen direla baina sakabanatuak direla ikusirik, plataformak eduki horiek bildu, sailkatu eta herritarren esku ezartzen jartzen ditu, euskararen munduetara sartzeko ate gisa.

Edukien aniztasuna

Hain zuzen ere, on.eus-ek euskararekin zuzenean lotura duten pertsonen beharretara egokitutako laguntza eta baliabideak proposatzea du xede. Berezitasuna da aldi berean haur euskaldunen gurasoei, euskara ikasten ari diren helduei, euskaraz bizi nahi duten euskaldunei eta interesa duten erdaldunei zuzentzen zaiela.

Edukiak sailkatzeko sistema aitzinatu bati esker, publiko bakoitzak bere beharretara egokitutako artikuluak, aholkuak, bideoak edo tresna praktikokoak aurkituko ditu. *“Informazio argia eta irisgarria proposatu nahi dugu – azaldu dute proiektuaren sustatzaileek. Ez da ez aktualitate webgune bat, ez iritzi blog bat, baizik eta plataforma pedagogiko bat, mezu inklusibo, eraikitzaile eta inspiratzailea zabaltzen duena. Azken batean, laguntza linguistikoa!”*. Tonu anitzetan idatzitako testuak eskaintzen ditu: sakonagoak diren artikuluak zein arinagoak direnak, euskara umorez ere bereganatzen dela erakutsiz.

Ekimen kolektiboa

“ON! Piztu” elkarteak eta EEPk bultzatutako tresna praktikoa hau euskararen transmisioan, erabileran eta sustapenean engaiaturiko elkarten eta instituzio publikoen arteko lankidetzaren emaitza da. 2023ko irailetik, sei astetik behin bildu dira dispositiboaren oinarriak zehazteko. *“Dena elkarriketa eta lankidetzaz bidez egin da”* azpimarratu dute. Xarta editorial bat ere idatzi dute, ahalik eta jende gehienak gunen honen espirituarekin bat datozen artikuluak idatz ditzan.

“Euskararekiko sentsibilizazioa EEPk daraman hizkuntza politikaren ardatz nagusia da – gogorarazi du bere presidentek, Maider BEHOTEGUYk. Elkarrekin eta osagarritasun espirituan lan eginez, publiko zabalarengana iritsiko gira eta gure helburu komunak hobeki beteko ditugu.”

Hainbat hautetsik ere hartu zuten parte on.eus plataformaren aurkezpen publikoan; horien artean: Mathieu BERGE eta Emilie DUTOYA Eskualdeko Kontseilariak, Jean-René ETCHEGARAY Baionako auzapeza eta Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaria, baita Aitor ALDASORO ere Eusko Jaurlaritzako hizkuntza politikaren sailburuordea... Euskal Herri osotik etorritako elkarleen ordezkariak ere bertan izan ziren, tresna hau sortzen lagundu dutenak eta abiarazteari babesa ematera etorriak.

Etorkizuneko berrikuntzak

Elkarteko kideek zehaztu dutenez, ON! epe luzeko proiektua da. Urtea bukatu baino lehen, hilabetero webgunean atal berriak sartuko dira: aurkitegi oso bat, berri paper bat, podcastak... Azaroan, hainbat pertsona ezagunek artikuluak sinatuko dituzte: Kike Amonarriz, Céline Mounole, Pontx, Michel Feltin-Palas, Ainize Madariaga, Xan Aire, Maddi Kintana, Mirentxu Ibargarai, Xan Berterretxe, Oriane Ayestaran...

Bestalde, sare sozialetarako eduki bereziak sortuko dira, euskararen inguruan dinamika bateratzaile, interaktibo eta bizi bat sortzeko. Mezuen eta formularioen bidez, erabiltzaileek plataforma hobetzen lagun dezakete, eduki berriak proposatuz, atalak osatuz edo iradokizunak eginez. Motibatuenak testuak idaztera gonbidatuak dira.

Udazken honetan, ON! Ipar Euskal Herriko ekitaldietan (merkatuak, bestak, saloiak...) erakusmahaiak atxikiko ditu, publiko zabalarengana iristeko. Baionako euskararen egoitzak ere ateak irekiko ditu erregulariki, webgunearen erakusleho gisa. *“Hara: ON! piztu dugu. Euskarara konektatzeko garaia da!”* ondorioztatu dute parte-hartzaileek.

IZENAREN JATORRIA

Proiektuak ez du beti ON! izena izan. 4 urtez, proiektuaren arduradunek “Ongi etorri” deitu zioten. Hala ere, izen hori etorri berriengan gehiegi zentratua zela ondorioztatu zen eta tailer kolektibo batek ON! izena proposatu zuen:

- Erraz ahoskatzen da,
- NO-ren kontrakoa da,
- Hizkuntza guztietan piztea eta konektatzea adierazten du,
- Frantsesez “nous” (GU) eta euskaraz atzizki jabetzailea da (euskaldunON)
- Biribila, positiboa, bateratzailea...

Laburbilduz: Egun ON! eta ONGi etorri.

ON! ZENBAKITAN:

- 64 orrialdeko ikerketa akademikoa.
- 7 atal eta 7 azpiatal.
- 35 artikulu argitaratuak bi hizkuntzetan.
- 57 dokumentu deskargatzeko.
- 100 kanpoko esteka euskaraz hobeto bizitzeko.
- 15 lan-saio kolektibo.
- 51 erakunde publiko eta elkarte inplikatu.
- 120m²ko egoitza euskarari dedikatuak Baiona txikian.

PRENTSA HARREMANETARAKO:

Maitena ARRAYET ■ euskara@on.eus ■ 07 57 01 14 04